



Nik, Jose Luis Martin González jaunak, UPV/EHUko idazkari nagusiak, ziurtatzen dut dokumentu hau hitzez hitz datorrela bat jatorrizkoarekin. Idazkaritza Nagusiko bulegoko buruak (2/20zk) zuzenpetua, 2013ko urtarrilaren 10eko erabakiaren bidez izenpea eskuordetuta.

Leioa, 2016(e)ko ... (a)ren ...



Jose Luis Martin González, Secretario General de UPV/EHU, certifica que el presente documento coincide literalmente con el original. Delegación de firma, en virtud de la Resolución de 10 de enero de 2013, la jefe de Negociado de Secretaría General (dot. 2).

Leioa, ... de ... de ...

ERABAKIA, 2016ko URTARRILAREN 11koa, BIZKAIKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEARENA. HONEN BIDEZ, UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN BIZKAIKO CAMPUSEKO ZITEK PROGRAMAREN BARRUAN KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEKO EKINDUZ 2016 LEHIAKETAREN OINARRIAK ONARTU ETA DEIALDIA EGITEN DA

HELBURUA

Kultura ekintzailea UPV/EHUko Bizkaiko Campusean sustatzea, ikasleei joko batean parte hartzeko aukera eskainiz. Joko horrek enpresak sortzeko gaietan trebatuko lituzke ikasleak modu ludiko eta entretenigarri batez.

EPEAK

EKINDUZ lehiaketako sailkapen txanda 2016ko OTSAILAREN 1ean hasi eta 2016ko OTSAILAREN 28an amaituko da 23:59an. Epe horretan, ikasleek edonoiz hartu ahalko dute parte jokoan.

Finala 2016ko MARTXOAREN 10ean izango da UPV/EHUko lekuren baten, parte hartzaileei gutxienez aste beteko epez jakinaraziko zaiena.

Ez da ordainduko izena emateagatik.

PARTE HARTZAILEAK

EKINDUZen parte hartu ahalko dute UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko ikasleek (baita master eta doktoregoko ikasleek ere) eta azken bi urteotan lizentziatutakoek.





JOKOAREN NONDIK NORAKOAK

SAILKAPEN TXANDA (ONLINE FASEA)

LEHENENGO FASEA

Taulak 46 lauki ditu, era honetara banatuta. 42 lauki: lauki bakoitza Zitek programako enpresa bat izango da; 3 lauki berezi ("Zortea" kategoria), Zitek programako bazkideak (UPV/EHU, DFB/BFA eta Beaz); eta Zitek irteera laukia.

Berrogeita bi (42) laukiak koloretan zatituko dira 5 talde handitan (Azpiegiturak, Pertsonala, Finantziarioa, Kanpo. Eragileak eta Eragile Ukiezinak). Azken horietako bakoitzak 3 kategoria biltzen ditu. Salbuespena Eragile Ukiezinak dugu, bi kategoria bilduko baititu (hirugarrena "Zortea" litzateke, bere lauki propioak dituen).

Lehenengo fase honetan parte hartzaileek eskaintzen diren 4 enpresa motaren artetik (autonomia, mikroETE, ETE edo multinazionala) bakarra aukeratu beharko dute, nahi dutena.

Enpresa mota aukeratutakoan, kategoria bakoitzeko galdera bati erantzun beharko diote azertatuz, hau da, 14 kategoria direnez, 14 galderari erantzun beharko diete azertatuz, bigarren fasera pasatzeko. Horretarako, dadoak jaurtiko dituzte eta taulan barrena joan eta erantzun beharko diote, erortzen diren laukia zer taldetakoa den kontuan hartuta, erantzun zuzena ematea falta zaizkien artetik aukeratu duten kategoriarik. Talde bakoitzeko hiru kategorietan erantzun zuzena eman denean, talde horietako laukiak jokotik baztertu eta, ondorioz, ezin izango da berriro erori horietan.

Partida hasieran, jokalariak lau bizitza eta komodin bat izango ditu. Emandako erantzun oker bakoitzak bizitza bat agortuko du eta komodina (%50eko komodina) erabiltzeak bi erantzun oker kenduko ditu. Ezin izango dira pilatu ez 5 komodin baino gehiago ez 5 bizitza baino gehiago. Bizitza bat bera ere gabe geldituz gero, jokoa zerotik hasi beharrean egongo da.

Hiru lauki berezi horietako batean erortzen bada, "zortea" sartuko da jokoan. Hortaz, parte hartzaileak ausaz komodin bat edo bizitza bat lortu ahalko du.





Zitek laukian erortzen bada, parte hartzaileak komodin eta bizitza bana lortuko ditu.

Hautatutako erantzuna okerra bada (galdera bakoitzak dituen 4 aukeraren artetik hautatu behar da, eta, jakina, aukera bakarra da zuzena), jokalaria dagoak jaurtitzen jarraituko du, eta partida eten edota partidara itzuli ahal da nahi adina alditan, jokoak iraun bitartean.

BIGARREN FASEA

Behin lehenengo faseko 14 kategorietako galderei erantzun zuzen bana emandakoan (ez da beharrezkoa zortean erortzea), bigarren fasera igaroko da automatikoki.

Enpresa mota aukeratutakoan, parte hartzaileak lehenengo fasean jokatu dituen 14 kategoriak ("Zortea" izan ezik) azalduko dira. Kategoria horietako bakoitzean hainbat aukera izango dira, zuzenena hautatu beharko da joko hasieran eskainitako 4 enpresa aukeren artetik, kontuan hartuta kasu guztietan erantzun zuzen bakarra dagoela, 3 puntu ematen dituenak, eta kasu gehienetan, puntu 1 ematen duen bigarren aukera bat dagoela.

Bigarren faseko puntuak batuta, bi finaletan, final horietako bakoitzean, parte hartuko duten 5 parte hartzaileak aterako dira, puntuaziorik handiena lortu dutenak, jakina.

Parte hartzaile batzuk berdinduta badaude, horien artean egingo den zozketak erabakiko du, 5 finalista gelditu arte, zeintzuk pasatuko diren finalera.

Azken sailkapenaren berri emango zaie finalistei azaroaren 24an argitaratuko den webgunean: <http://www.emprendedoreszitek.com/eu-es/hasiera.aspx>. Era berean, mezu elektronikoko baten bidez jakinaraziko zaie finalera iritsi direla (telefono zenbakirik utzi badute, telefonoz ere abisatuko zaie). Baten batek etortzerik ez balu, sailkapenean haren ondoren dagoenak beteko luke.



MANAGERES
EUROPEAN
CAMPION



Irakasketa Forua
Aholkaria
Dinamizazio
Forala eta Oribatua



EGUR
FEDER





AZKEN TXANDA (FASE PRESENTZIALA)

Finala parte hartzaileak bertara azalduz jokatu da.

Horretan, lehenengo fasea bakarrik jokatu da, eta irabazlea izango da jokoko kategoria guztietan erantzun zuzenak ematen dituen pertsona. Jokoak jarraituko du harik eta beste pertsona bik kategoria guztietan erantzun zuzenak eman arte. Orduantxe amaituko da jokoak.

Fase birtualean ez bezala, erantzun oker bat emanaz gero, txanda galdu eta beste parte hartzaile baten txanda izango da. Hortaz, bizitzak kenduko dira eta "Zortea" eta Zitek laukiak komodinak izango dira.

Dadoak jaurtiko dira parte hartzaileen ordena ezartzeko. Zenbakirik handiena lortzen duenak hasiko du jokoak eta lagun horren eskuinaldean dagoenak jarraituko du.

Jokalari bakoitzak, gehienez, hiru txanda izango ditu, eta txanda hurrengoari pasatuko zaio baita galdera azertatuta ere.

DIPLOMA ETA AUKERA ASKEKO KREDITUAK

Parte hartu izanaren diploma jasoko dute (eskatu badute) lehiaketan bigarren fasea gaingitzen dutenek.

Lehiaketak 15 orduko iraupena izango du, gutxi gorabehera. Beraz, plan zaharreko ikasleek aukera askeko kreditu 1 jasoko dute eta plan berrikoek kreditu erdia.

Ziurtagiriak posta arruntaz bidaliko dira.





SARIAK

Finaleko bost parte hartzaileek sari hauek jasoko dituzte:

Lehenengo sailkatuak: 1.200 euro

Bigarren sailkatuak: 600 euro

Hirugarren sailkatuak: 300 euro

Laugarren eta bosgarren sailkatuek: 150 euro

Lehiaketako bigarren fasea amaitu duten parte hartzaileak (aurreneko bost sailkatuak izan ezik) 150 euroko 2 sari emateko zozketan sartuko dira.

ZABALKUNDEA

Deialdi hau Bizkaiko Campusaren iragarki taulan eta webgunean www.emprendedoreszitek.com argitaratuko da.

Deialdi honetako gainerako egintzak eta egin beharreko komunikazioak www.emprendedoreszitek.com webgunean argitaratuko dira.

EPAIMAHAIA ETA AZKEN ERABAKIA

Lehiaketako Epaimahaiak erabakiko luke lehiaketaren online fasean edo lehiaketaren azken fasean sor litekeen edozein erreklamazio edo zalantza. Zitek programako hiru bazkideen ordezkari banak osatuko dute epaimahaia.

Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak erabakia eman ondoren, irabazleak biltzen dituen azken erabakia <http://www.emprendedoreszitek.com/eu-es/hasiera.aspx> webgunean argitaratuko da.

OINARRIEN ONARPENA ETA DATUEN BABESA

Parte hartzaileek ez dituzte auzitan jarriko lehiaketako erantzunak, joko hasi aurretik adostuko dira eta parte hartzaile guztiek onzat emango dituzte lehiaketan parte hartzeko izena eman bezain laster. Izan ere, lehiaketan parte hartzeak dokumentu honetan zehaztutako arau guztiak onartzea dakar.





Lehiaketaren batzorde antolatzaileak (Zitek) beretzat gordetzen du parte hartzailearen bati uko egiteko eskubidea, egoki joz gero. Batzorde honek beretzat gordetzen du -lehiaketan, online fasean edo azken fasean, irregulartasunik gertatuz gero- neurriak hartzeko eskubidea.

Datuak Babesteko Lege Organikoa betez, jakinarazten dizugu zure datuak Zitek-en titulartasunpeko fitxategi batean gordeko direla, eta fitxategi hori lehiaketa behar bezala gauzatzeko erabiliko dela. Datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, indarrik gabe uzteko eta datuen aurka egiteko eskubideaz baliatu ahal da UPV/EHUko Zitek-ekin (Sarriena auzoa z/g- 48930 Leioa) harremanetan jarriz gero: zitek@ehu.eus

ERREKURTSOA

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta haren aurka aurkez daiteke aukerako berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, erabakia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, guztia azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, zehaztutakoaren babesean.

Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita. Berraztertze errekurtsoa jarri bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri harik eta lehenengoaren berariazko ebazpenik edo presuntziorik hartu arte.

Erabaki hau argitaratu eta handik sei hilabetera webgunean esleitzeko ezelako erabakirik argitaratu ez balitz, interesatuek ulertu beharko dute beren eskaria ezetsia izan dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan xedaturikoari jarraituta.

BIZKAIZKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEA

Carmelo Garitaonandia

